

# ETXEAN INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO FORU BALIABIDEAK ETA UDALERRIETAKO ETA MANKOMUNITATEETAKO BALIABIDEAK

*Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa,  
Familietan esku-hartzeko programa espezializatuak eta  
Familia-elkarguneak.*

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

Bizkaiko Genero  
Indarkeriaren Behatokia

2011ko ekaina

## Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b> .....	<b>Orr.</b> <b>3</b>
<b>Laburpena</b> .....	<b>4</b>
<b>Harrera - baliabideak</b>	
Bizkaiko Foru Aldundian.....	8
Udalerrietan.....	10
Mankomunitateetan.....	16
<b>Aholkularitza juridikoko baliabideak</b>	
Bizkaiko Foru Aldundian.....	19
Udalerrietan.....	20
Mankomunitateetan.....	40
<b>Laguntza psikologikoko baliabideak</b>	
Bizkaiko Foru Aldundian.....	48
Udalerrietan.....	51
Mankomunitateetan.....	66
<b>Familian esku-hartze espezializatua egiteko baliabideak</b>	
Bizkaiko Foru Aldundian.....	71
<b>Familia elkarguneko baliabideak</b>	
Bizkaiko Foru Aldundian.....	75
Udalerrietan.....	77
Mankomunitateetan.....	81
<b>1. ERANSKINA</b> .....	<b>83</b>
“Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak”, Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea	

## AURKEZPENA

Dokumentu honek indarkeria jasaten duten emakumeei laguntza juridikoa eta psikologikoa emateko Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden baliabideen inguruko informazioa jasotzen du. Horrez gain, etxean indarkeria jasaten duten emakume horiei babes emateko baliabideak ere jasotzen ditu, foru administrazioaren mendeakoak direla edo udaletakoak zein mankomunitateetakoak direla. Halaber, Foru Aldundiak etxean izaten den emakumeen kontrako indarkeria kasuetarako esku-hartze espezializatuari buruz 2006an abiarazitako ekimena ere jasotzen du. Eta aurreko txostenetik, ere bai, atal bat sartzen da, deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneen Lurraldeko zerbitzuei buruzko informazioa emateko. Izan ere, zerbitzu horiek lan izugarria egiten dute genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak babesteko aginduak daudenean.

Dokumentua ixteko, eranskin gisa, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko terminologia proposamena ere jasotzen da. Etxean tratu txarrak jasotzen duten eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko egin zen erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak modu bateratuan onartutako proposamena da. Eranskin horren helburua da kontzeptuak argitzea eta informazioa biltzearen helburua zehaztea, informatzailearen interpretazio subjektiboak saihesteko.

Txosten hau egiteko oinarrizko gizarte zerbitzuetako koordinatzaileek, gizarte langileek eta berdintasun eragileek emandako datuak eta agiriak hartu dira abiapuntutzat. Udal Harremanen Sarea ezarri zenetik, behatoki honek harreman bizia du informatzaile horiekin, eta eskerrak eman nahi dizkiegu, horien laguntzarik gabe ez baitzen agiri hau idazteko biderik izango.

Laguntza juridikoaren eta psikologikoaren arloan zerbitzu asko dago eta jarduteko irizpide ezberdin asko; beraz, laguntza horiei buruzko ataletan informazio orokorra jaso da eta alderdi zehatz batzuk aipatzen dira: zerbitzua kudeatzeko modua, esleipen-modua, hilean laguntza emateko ordu kopurua, zenbat profesionalek ematen duten zerbitzua, eta, azkenik, 2010ko ekitaldiko jardueraren datuak, erabiltzaile kopuruari buruzkoak (sexuaren arabera bereziak) eta indarkeria arazoengatik laguntza jaso duten emakumeen kopuruari buruzkoak (tratu txarrak eta sexu-erasoak/abusoak).

Oraingo honetan, lehenengo aldiz, laguntza horien edukiari eta laguntzaren xede den kolektiboari buruzko informazioa ere jasotzen da, laguntza horiek espezifikoko diren ala ez argituz. Horrela, hobeto ezagutu dezakegu eskaintzen diren zerbitzuen izaera. Era berean, agiriaren gaikako atal bakoitzaren aurretik mapa bat agertzen da, zerbitzuek Lurraldean zein estaldura duten erakutsiz.

Txostena irakurtzen hasi aurretik, komeni da ohartaraztea baliabide horiek eskaintza oso heterogeneoa osatzen dutela, eta izen baten pean askotariko izaera eta edukiak izan ditzaketen zerbitzuak bildu daitezkeela. Horren ildotik, ikusi dugu, zenbait kasutan, solaskide izan dugun pertsonak informazio, orientazio eta bideratze lanak aholkularitza edo tratamendu legez jaso dituela, eta horren ondorioz laguntza zerbitzu bera bi aldiz zenbatu dela. Halaber, datuen erregistroa oso modu ezberdinetan egiten da eta, batez ere aholkularitza juridikoaren eta laguntza psikologikoaren kasuan, erakunde batzuek irizpide zorrotza erabiltzen dute biktimak zenbatzeko baina beste batzuek irizpide malguagoa darabilte. Hori guztia dela-eta, oso zuhur jokatu behar dugu datuen arteko konparazioak ezartzeko orduan.

Bizkaiko udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideei dagokienez, aldaketa gutxi izan dira aurreko txosteneko egoerarekin alderatuta. 2010ko ekainean, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean, emakumeei zuzendutako arreta psikologikoko baliabide bat abian jarri da. Eta, beste alde batetik, Balmasedako udalerrian 2004 urtetik jardunean zeraman aholkularitza juridikoko baliabidea etendu da. Harrera-arloan azpimarratu behar da, martxan jartzekotan ziren zenbait proiektu —hala adierazi genuen aurreko txostenean— martxan jarri gabe daude oraindik ere (adibidez, harrerako etxeak Abanto Zierbenan eta Portugaleten).

## **LABURPENA**



**HARRERA - BALIABIDEAK (ETXEAK, ZENTROAK), LAGUNTZA JURIDIKOA, LAGUNTZA  
PSIKOLOGIKOA ETA FAMILIETAN ESKU-HARTZE ESPEZIALIZATUA EMAN EDOTA  
FAMILIA ELKARGUNEAK DUTEN ERAKUNDEEN ZERRENDA. BIZKAIA. 2011.**

## LABURPEN TAULA

HARRERA-BALIABIDEAK (ETXEAK, ZENTROAK), LAGUNTZA JURIDIKOA, LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, FAMILIETAN ESKU-HARTZE ESPEZIALIZATUA EMAN EDOTA FAMILIA ELKARGUNEAK DUTEN ERAKUNDEEN ZERRENDA. BIZKAIA. 2011.

Erakundeak	Harrera baliabideak	Aholkularitza juridikoa	Laguntza psikologikoa	Familian esku-hartze espezializatua	Familia elkarguneak
Bizkaiko Foru Aldundia	x	x	x	x	x
Abanto Zierbenako Udala	x	x			
Amorebieta-Etxanoko Udala	x	x	x		
Arrigorriagako Udala		x			
Barakaldoko Udala	x	x	x		x
Basauriko Udala	x	x	x		
Bermeoko Udala		x			
Bilboko Udala	x	x	( <sup>1</sup> )		
Durangoko Udala	x				
Ermuko Udala	x	x	x		
Etxebarriko Udala		x			
Galdakaoko Udala	x	x	x		
Gernika-Lumoko Udala			x		
Getxoko Udala		x	x		
Leioako Udala		x	x		
Muskizko Udala		x	x		
Ortuellako Udala		x			
Portugaleteko Udala	x	x	x		x
Santurtziko Udala	x	x	x		
Sestaoko Udala	x	x	x		
Ugao-Miraballeseko Udala		x			
Urduñako Udala		x			
Zallako Udala		x	x		
Busturialdeko Mankomunitatea	x	x			
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa		x	x		
Enkarterrietako Mankomunitatea					x
Mungialdeko Partzuergoa	x	x	x		
Lea Artibaiko Mankomunitatea		x			
Lea Ibarako Mankomunitatea		x			
Uribe-Kostako Mankomunitatea		x	x		

Oraindik erabilgarri ez dauden baliabide sortu berriak


(<sup>1</sup>)Emakumeak Bizkaiko Foru Aldundiaren Laguntza Psikologikoa emateko Programara bideratzen dira; modulu psikosozialekiko hitzarmen bat dago, itxarote-zerrenda dagoenean biktime horiei laguntza eman ahal izateko.

**ETXEAN TRATU TXARRAK JASOTZEN DITUZTEN  
EMAKUMEENTZAKO HARRERA - BALIABIDEAK**



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN  
BIZKAIKO UDALERRIETAN ETA MANKOMUNITATEETAN**

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA HARRERA-BALIABIDEAK (ZENTROAK/ ETXEA) 2011



## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila. Emakumea eta Familia Zerbitzua  
Helbidea: Ugasko 3, 2. solairua (48005 Bilbo)  
Telefonoa: 94 406 80 00

### LARRIALDI-ZERBITZUA

- ⊕ **Larrialdi-zerbitzuko leku-kopurua:** 12 leku (emakumeak eta horien ardurapeko seme-alabak).
- ⊕ **Jagote/lagun egite programa:** Egunean 24 orduan lagun egiteko langileak dauzka.
- ⊕ **Atxikitako langileak:** Koordinatzaile bat eta hezitzaile-talde bat.
- ⊕ **Kudeaketa:** Hitzarmena erakundearekin.

<b>Larrialdiko Harrera zerbitzua</b>  <b>2010. urtea</b>	<b>Hartutako pertsonak guztira</b>	<b><u>Egonaldi labur- ertaineko Harrerara igaro direnak:</u></b>
	<b>55 emakume.</b> <b><u>Horien ardurapeko Pertsonak:</u></b>  <b>45 adingabe</b> <i>(27 neska eta 18 mutil)</i>  <b>Menpeko pertsona heldu 1</b>	Horietatik honako hauei eman zaie harrera: <ul style="list-style-type: none"><li>▪ BFAko Gizarte Ekintza Sailaren zentro laguntzaileetara: 2 emakume eta horien ardurapeko adingabe 1 (neska 1).</li><li>▪ Udalek babesu emateko dituzten etxe/baliabideetara: 15 emakume eta horien ardurapeko 17 adingabe (9 neska eta 8 mutil).</li></ul>

## **IRAUPEN ERTAIN- LUZEKO BABES EMATEA**

⊕ **Iraupen ertain- luzeko babes emateko leku-kopurua:** 26 leku (emakumeak eta horien ardurapeko seme-alabak).

⊕ **Jagote/lagun egite programa:** Egunean 24 orduetan lagun egiteko langileak dauzka.

⊕ **Atxikitako langileak:** Diziplina anitzeko talde bat: gainbegiratzailer arduradun 1, koordinatzaile 1, psiko pedagogo 1 eta hezitzaile-talde bat.

⊕ **Kudeaketa:** Hitzarmena erakundearekin.

<b>Egonaldi labor-ertaineko Harrera</b>  <b>2010. urtea</b>	<b>Tratu txarrak jasan eta babesa izan duten pertsonak</b>	<b><u>Kasu berrien jatorria:</u></b> <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Larrialdi Zerbitzutik datozenak: 2 emakume eta horien ardurapeko adingabe 1.</li><li>▪ Zuzenean egonaldi labor-ertaineko harrera baliabidean sartzen dira: 3 emakume eta horien ardurapeko 2 adingabe.</li></ul>
	<b><u>Guztira:</u></b> <b>15 emakume</b> <b>14 adingabe:</b> (9 neska eta 5 mutil) <b><u>Kasu berriak:</u></b> <b>5 emakume</b> <b>3 adingabe:</b> (2 neska eta mutil 1)	

## UDALERRIETAKO BALIABIDEAK

2

### ABANTO ZIERBENAKO UDALA (Jarduera abiarazi gabe oraindik)

#### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1
- ⊕ Lekuak: 5 leku
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Zuzena
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez
- ⊕ Beste datu batzuk: Jarduera abiarazi gabe oraindik. Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartutako Kudeaketa.

3

### AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA

#### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1
- ⊕ Lekuak: 5 leku
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Zuzena
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2009ko uztailetatik irekita dago.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonak
		ZK	Neskak	Mutilak	ZK
	3	1	0	2	0

4

## BARAKALDOKO UDALA

### LARRIALDIETAKO ETA EGONALDI ERTAIN/LUZEKO HARRERA ZENTRO OROKORRA

- ⊕ Zentro-kopurua: 1
- ⊕ Lekuak: 12 leku
- ⊕ Baliabide mota: Egonaldi luzeko osoko harrera zentroa.
- ⊕ Kudeaketa: Zeharkakoa (erakunde bat kontratatuta)
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Bai
- ⊕ Zentroari atxikitako langileak: Bai
- ⊕ Beste datu batzuk: 2007ko apirilaren bukaeratik 2009ko apirilaren bukaera arte harrerako etxe bat martxan egon zen udalerrian, eta etxe hori itxi egin zen, epe ertain eta luzeko egonaldietarako Harrera integraleko Zentroa martxan jarri zelako (2009ko maiatzean).

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonak
		ZK	Neskak	Mutilak	ZK
	29	18	8	3	0

5

## BASAURIKO UDALA

### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 2
- ⊕ Lekuak: 10 leku (5 leku etxe bakoitzeko)
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioiko langileria
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 1993tik dago irekita.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonak
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.
	1	1	0	0	0

## BILBOKO UDALA

### HARRERA ETXEA

- ⊕ **Etxe-kopurua:** 9
- ⊕ **Lekuak:** 43 leku
- ⊕ **Etxe-mota:** Larrialdietarako harrera-etxe 1, egonaldi ertain/luzeetarako 6 eta autonomia indartzeko 2.
- ⊕ **Kudeaketa:** Erakunde bat kontratatuta.
- ⊕ **Jagote/lagun egite programa:** Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko programa
- ⊕ **Etxeari atxikitako langileak:** 3 gizarte hezitzaile.
- ⊕ **Beste datu batzuk:** Berreskuratze-faseko etxebizitzak (larrialdietarako etxebizitzak eta egonaldi ertain/luzeetarakoak), erabiltzaileek sinatzen duten kontratua, etxebizitza lagapen prekarioan hartzekoa, bi hilabeterako da, lau hilabetera luza daiteke, eta nahi beste luzapen egin daitezke, gizarte-langilearen balorazioaren arabera. Etxebizitzak 1988an, 1995ean, 2004an eta 2005ean ireki ziren.  
Laguntza-aldia amaitu aurretik, zubi-etxebizitza funtzioa ere betetzen duten autonomia indartzeko etxebizitzak kasuan, hiru hilabeterako da egonaldia eta sei hilabetera arte luza daiteke. Etxebizitzak 2008an gaitu ziren.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonek
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.
	64	28	12	19	5

## DURANGOKO UDALA

### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1
- ⊕ Lekuak: 5 leku
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2008ko urtarriletik dago irekita.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonak
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.
	2	1	0	1	0

## ERMUAKO UDALA

### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1
- ⊕ Lekuak: 4 leku (baita sehaska aukera badago ere)
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Hezkuntza esku-hartze sozio familiarreko programa, egoki ikusten bada, bai eta beste programa batzuk ere (etxez etxeko laguntza zerbitzua eta abar).
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 1989ko urtarriletik dago irekita.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonak
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.
	2	1	0	1	0

## GALDAKAOKO UDALA

### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1
- ⊕ Lekuak: 5 leku
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 1990eko uztailetik irekita dago. Gehienez 6 hilabeteko egonaldiak, beste bi hilerako luza daitezkeenak.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak		Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonak
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.	
	2	2	0	0	0	

## PORTUGALETEKO UDALA<sup>2</sup> (Jarduera abiarazi gabe oraindik)

### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 2
- ⊕ Lekuak: 5
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria
- ⊕ Jagote/lagun egite programa:
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak:
- ⊕ Beste datu batzuk: Jarduera abiarazi gabe oraindik.

<sup>2</sup> Portugaleteko Udalak Larrialdietarako Egoitza Zerbitzua dauka. Zerbitzu horrek tratu txarrak jaso dituzten emakumeen harrera eta egoitza ematea kudeatzen du. Horretarako, gizarte langile bat du egunean 24 orduz, emakumeei lagundu, harrera egin eta egoitza emateko.

## SANTURTZIKO UDALA

### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1
- ⊕ Lekuak: 5 leku
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Bai
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2002ko abendutik dago irekita.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonak
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.
	3	1	2	0	0

## SESTAOKO UDALA

### HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1
- ⊕ Lekuak: 5 leku
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2003tik dago irekita. 6 hilabeteko egonaldiak egiten dira gehienez ere.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonak
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.
	2	1	0	1	0

## BALIABIDEAK MANKOMUNITATEETAN

13

### BUSTURIALDEKO MANKOMUNITATEA

#### HARRERA ETXEA

- ⊕ **Etxe-kopurua:** 1 (bi gehiago beharrezkoa izango balitz)
- ⊕ **Lekuak:** 5 leku
- ⊕ **Etxe-mota:** Larrialdietarako etxea. 2 edo 3 hilabeteko egonaldiak egiteko aukera ematen du.
- ⊕ **Kudeaketa:** Administrazioko langileria. Gernika-Lumoko Udaleko Emakume Zerbitzuaren eta Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen mende.
- ⊕ **Jagote/lagun egite programa:** Badago laguntza programa bat, indarkeriaren aurkako programa zabalago baten tresnetako bat dira etxeak.
- ⊕ **Etxeari atxikitako langileak:** Ez dago langilerik atxikita. Boluntario-talde batek laguntza ematen die emakume erabiltzaileei.
- ⊕ **Beste datu batzuk:** Baliabide hau 2002ko urritik dago martxan.

Harrera programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonek
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.
	0	-	-	-	-

14

### MUNGIALDEKO KONTSORTZIOA


#### HARRERA ETXEA

- ⊕ **Babesa emateko baliabidea:** 1
- ⊕ **Lekuak:** 2 leku (harrera familiar baten beharrei moldatzeko posibilitatea dago).
- ⊕ **Baliabide-mota:** Larrialdietarako harrera.
- ⊕ **Kudeaketa:** Hitzarmena erakundearekin
- ⊕ **Jagote/lagun egite programa:** Ez
- ⊕ **Atxikitako langileak:** Ez dago langilerik atxikita. Boluntario-talde batek laguntza ematen die emakume erabiltzaileei.
- ⊕ **Beste datu batzuk:** Baliabidea 2003tik dago irekita.

Babes programa: 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Ardurapeko adingabeak		Ardurapeko beste pertsonek
		ZK.	Neskak	Mutilak	ZK.
	1	1	0	0	0

**AHOLKULARITZA JURIDIKOKO BALIABIDEAK**  
⊕  
**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN**  
**ETA BIZKAIKO UDALERRI ETA MANKOMUNITATEETAN**

## BIZKAIAKO LURRALDE HISTORIKOA AHOLKULARITZA JURIDIKOA 2011



## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila. Emakumea eta Familia Zerbitzua  
Helbidea: Ugasko 3, 2. solairua (48005 Bilbo)  
Telefonia: 94 406 80 00

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak: Ezkontza edo bikotea hausten denean familia-gatazkek eta, oro hari, familia barruko indarkeria mota guztiak eragozte eta arintzea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Familia-zuzenbideari buruz, eta tratu txar edota sexu-erasoei buruz, argibide juridikoak ematea.
- Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren ofiziozko txandaren esku geratzen diren kasuen jarraipena egitea.
- Presazko kasuetan, ezkontzaren banantze-prozeduraren aurretik behin-behineko neurriak idaztea.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Emakumei zein gizonei.

⊕ Kudeaketa-mota: Zeharkakoa (Clara Campoamor Elkartearekiko hitzarmena)

⊕ Orduak/ hileko: Gutxienez 5 ordu eguneko (gutxienez 100 ordu hilabeteko).

⊕ Programan sartzeko modua: Zuzenean elkartera deitu eta hitzordua eskatu (Tel. 94 423 91 55).

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 10.00etatik 19.00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak	
		Zk.	Gutzizkoaren %	Tratu txarrak	Sexu-erasoa
	389 <sup>3</sup>	377	96,9	80	23

<sup>3</sup> Kasu berriak.

## UDALERRIETAKO BALIABIDEAK

2

### ABANTO ZIERBENAKO UDALA

#### Berdintasuna eta Genero Politikak Arloa

Helbidea: El Minero Etorbidea 2 , beheko solairua. (48500 Abanto Zierbena)

Telefonoa: 94 636 17 37

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

Programaren xedea da ondorengo hauen inguruko aholkularitza juridikoa eskaintzea:

- Familia-zuzenbidearen inguruko aholkularitza juridikoa: banatzeak, izatezko bikoteak, pentsioak, bisiten erregimena, elkar adostutako prozesuak, dibortzioak, eta abar.
- Genero indarkeriaren inguruko aholkularitza juridikoa: tratu txar fisikoak eta psikologikoak, sexu-erasoak, eta abar.
- Doako justizia eskatzeari buruzko aholkularitza.
- Bestelako kontsultak: errentamenduak, salerosketa, ordaindu gabekoak, eta abar.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Abanto Zierbenan bizi diren emakumeei eta gizonei.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/ hileko: 8 ordu hilabeteko.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako 2 pertsona.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2006ko martxoan jarri zen abian zerbitzu hau.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 94 636 17 37

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: txandakako asteazkenetan, 9.00etatik 13.00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak	
		ZK.	Gutzizkoaren %	Tratu txarrak*	Sexu-erasoa
	47	41	87,2	4	0

\* Kasu berriak.

## AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA

Gizarte Ongizate, Osasun eta Berdintasun Saila  
Helbidea: Nafarroa kalea z.g. (48340 Amorebieta)  
Telefonoa: 94 630 01 90

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak: Udalerriko emakumeei aholkularitza juridiko orokorra ematea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Familia-zuzenbidearen inguruko aholkularitza juridiko orokorra: banantze-prozedurak, dibortzioak, irabazpidezkoen likidazioa.
- Genero indarkeriaren inguruko aholkularitza juridikoa.
- Doako justizia izapidetzeari buruzko aholkularitza.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Amorebieta-Etxanoko emakumeei.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/ hileko: 8 ordu hilabeteko.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2005ko ekainean jarri zen abian zerbitzu hau.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 946 81 52 90

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: asteazkenetan, 15.00etatik 17.00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak	
		ZK.	Gutzizkoaren %	Tratu txarrak*	Sexu-erasoa
	30	25	83,3	4	0

\* Kasu berriak, 2; aurreko kasuak, 2.

## ARRIGORRIAGAKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila.

Helbidea: Argala enparantza 2-1 (48480 Arrigorriaga)

Telefonoa: 94 402 02 05

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak:

- Estaldura juridiko positiboa ematea emakumeei, familia-zuzenbidearen esparruan edota tratu txarren edota sexu-erasoen kasuan, banakako arreta pertsonalizatua eskainiz.
- Ezkontza edo bikotea hausten denean familia-gatazkak eta, oro hari, familia barruko indarkeria mota guztiak eragozte eta arintzea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Emakumeen eskubideei buruzko aholkularitza juridikoa, familia-zuzenbidearen eta zigor-zuzenbidearen alorretan.
- Emakumeei informazioa ematea, prozedura judizial- zibil- penala abiarazteko.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Arrigorriagako emakumeei.

⊕ Kudeaketa-mota: Hitzarmena Erakunde batekin.

⊕ Orduak/ hileko: 16 ordu hilabeteko.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2006ko martxoan jarri zen abian zerbitzu hau.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 944 02 02 05

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: asteazkenetan, 10.00etatik 14.00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2010. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak	
		ZK.	Gutzizkoaren %	Tratu txarrak*	Sexu-erasoa
	48	37	77	3	0

\* Kasu berriak, 2; aurreko kasuak, 1.



































































































































